

KARMELE MUÑOA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

**ZIURTATZEN DOT:**

2013ko apirilaren 29an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**25.- 2013-KO APIRILAREN 15-EKO TOKIKO GOBERNU BATZARREKO 14. PUNTUA ZUZENTZEA.**

2013ko apirilaren 15eko Tokiko Gobernu Batzarreko 14. puntua, aho batez, zuzentzea erabagi dabe batzordekideak, eta holan geratuko da:

**\*14.- ESKUALDEKO ENPLEGU PLANANEKO “KALITATE, INGURUMEN ETA LANEKO OSASUN SISTEMETAKO ZUZENDARIEN PRESTAKUNTZARAKO PROGRAMA” IKASTAROA KONTRATATZEKO ENPRESEA ESLEITZEA.**

**Xedea**

Eskualdeko Enplegu Planeko “Kalitate, Ingurumen eta Laneko Osasun Sistemetako Zuzendarien Prestakuntzarako Programa” ikastarorako enpresea kontratatzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: 2012eko ekainaren 7an Merkataritza, Sustapen eta Turismoko batzorde informatiboan, baldintza administratibo eta teknikoak onartu ziran eta esleipen jardunbideari hasikerea emon jakon.

Bigarrena: AENOR, EUSKALIT eta DAITEKE enpresei kontratazinoan parte hartzeko gonbitea bialdu jaken.

Hirugarrena: AENOR eta EUSKALIT enpresek, euren eskaintzea bialdu dabe.

**Argudioak**

Lehenengoa: Hautagai guztiek **A** kartazala “**Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena**” aurkezten dabe eskatutako dokumentuakaz.

Bigarrena: **B** kartazala “**Formula matematiko bidez kuantifikatu ezinezko erispideen dokumentazinoa**” baloratzen da:

ENPRESEEA	Baldintza teknikoaren pleguan eskatutakoagazko egokitzapena	Prestakuntza programaren proposamena	Prestakuntza ekintza garatzeko erabiliko den metodologia	Parte hartzaileekin ebaluatzeko proposamena	<b>GUZTI RA</b>
	(20 puntu)	(20 puntu)	(15 puntu)	(10 puntu)	(75 puntu)
<b>AENOR</b>	20	30	15	10	75
<b>EUSKALIT</b>	20	25	10	10	65

Hirugarrena: **C** kartazaleko **PROPOSAMEN EKONOMIKOAK** eta euren puntuazioa honakoa da:

ENPRESEEA	Proposamen ekonomikoa BEZ KANPO	PUNTUAZINOA (25 puntu)
<b>AENOR</b>	52.000,00	18,05 puntu
<b>EUSKALIT</b>	49.500,00	25 puntu

Laugarrena: B kartazaleko puntuazioa gehi C kartazaleko puntuazioa honako hau da:

ENPRESEEA	B kartazala Proposamen teknikoak	C kartazala Proposamen ekonomikoa	<b>GUZTIRA</b>
<b>AENOR</b>	75	18,05	<b>93,05</b>
<b>EUSKALIT</b>	65	25	90

Bosgarrena: Errekerimentua egin ondoren, dokumentazioa konpultsatu dau enpreseak.

### **Erabagia**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

**BAKARRA: AENOR** enpreseari, “Kalitate, Ingurumen eta Laneko Osasun Sistemetako Zuzendarien Prestakuntzarako Programa” ikastaroa emoteko kontratua **52.000 euro + 10.920 eurotan** esleitzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2013ko apirilaren 30ean.

ONETSIA  
ALKATEA